



## Euskal Herria, 2019-III-1

Etxeraten ohiko lan lerroa euskal preso eta iheslari politikoen senitartekoei laguntza eta aholkularitza ematea da, baina urte batzuk badira bere ohiko lanari beste lan lerro bat eranstea erabaki zuela. Laguntza eta aholkularitza lanaren eboluzio iraunkor baten ildotik esku-hartze hori garatu eta finkatu egin du, bizikidetzaren sendotzen eta gatazka politikoa ebazten laguntzeko helburu eta konpromisoarekin.

Gogoeta egin eta konpromisoak hartzeko prozesu horretan Gernikako Akordioari atxikimendua adieraztea erabaki genuen 2011. urtean. Bi urte geroago argitaratu genuen “Sufrikarioaren aitorpena” izeneko agiria; handik laster, beti ere norabide berean, Eusko Jaurlaritzaren “Bake eta Bizikidetzaren Planari” gure ekarpena egin genion. Honek guztiak Foro Sozialarekin elkartzeraren eraman gintuen, eta gaur egun Foro horretan aktiboki esku-hartzen jarraitzen dugu.

Foro Sozialean parte hartzearen ondorioz, Bartzelonako jardunaldietan izan ginen. Jardunaldi horien izenburua “Construint la pau. Reptes i oportunitats per al País Basc, después de la fi d’ETA” zen eta hiru erakundek antolatu zuten: Bartzelonako Udalak, FundiPau-k (Bakearen aldeko Fundazioa) eta Foro Sozialak berak. Jardunaldi horietan hainbat joera eta izaeratako biktimak elkartu ziren.

Geroago, urrian ospatutako Buesa Fundazioaren jardunaldietan esku-hartu genuen; konbentziturik geunden, ezberdintasunak izan arren, elkarri entzun behar geniola eta zubiak eraiki behar genituela, aurrera egiten saiatzeko, batzen gaituen horretan oinarrituta; hori da bizikidetzari egin diezaiokegun ekarpen nagusia, iraganeko bidegabekeriak errepikatzea ezinezko egingo duen etorkizun bat eraikitzeko.

Prozesu honetatik guztitik eratorri da Miramar Jauregian gaur egiten dugun irakurketa.



## **Etxeraten ekarpena bizikidetzari**

Euskal iheslari eta preso senitartekook gure lurraldeko bizikidetzaren demokratikoari ekarpen bat egiteko egiazko borondatea publikoki adierazi nahi dugu. Agertoki berri honetan premia bat partekatzen dugu: gatazka politikotik eratorritako bortxaren ondorioak jasan dituzten eta jasaten dituzten pertsona guztiei eta pertsona bakoitzari entzun dakiola, gatazka hori konpontzeko ekarpen gisa eta berriro horrelakorik gerta ez dadin.

Badakigu ETAREN biktima asko aurrerapauso bat ematen ari dela, beste espetze politika bat publikoki aldarrikatuz eta egungoa albora utziz; izan ere, egungo espetze-politikaren ondorioen artean dago euskal preso politikoen senitartekoak zigortzea. Egiaz eskertu nahi diegu sufritzen dugunokiko agertzen duten enpatia eta hori eskuzabaltasunez egitea, trukean ezer espero izan gabe. Geuk ere elkar onartzearen aldeko ekarpena egin nahi dugu. Benetakoa da horretara bultzatzen gaituen bulkada, bakearen eta bizikidetzaren aldeko konpromisoak bultzatuta adierazten duguna.

Bortxa mota ororen biktima izan diren guztiei gertatu zaien moduan, euskal preso politikoen senitartekook urte askotan zehar sentitu dugu gizartearen zati baten eta haren ordezkari politikoen indiferentzia. Badakigu nola alboratzen diren bizikidetzaren politika publikoak eta salbuespeneko espetze politikaren biktima potentzialak izaten jarraitzen dugu. Geure burua babestera eta besteen minaren aurrean isiltasuna gordetzera eraman gaitu horrek. Besteengana hurbiltzeko eta haiei enpatia adierazteko gai ez izatera eraman gaitu.

Zinez eta benetan barkamena eskatzen dugu, horretaz konturatu gabe, gure urruntasunaren bidez, areagotu ahal izan dugulako senitarteko bat bortxaren eraginez galdu duten ETAREN biktimek jasan behar duten mina.

Bortxaren era guztietako adierazpenen biktima ororekiko aitortpena, begirunea eta enpatia agertzen ditu Etxeratek. Biktima guztiekikoak, edozein dela ere bortxaren jatorria: ETAREN biktimak; Komando Autonomoenak; Estatuaren terrorismoarenak; Espainiako Estatuaren Segurtasun Indar eta Gorputzen jarduerarenak; torturen biktimak. Horiei guztiei eskua luzatzen diegu gaur, bereziki, egitez edo ez-egitez, nahi gabe bada ere, berorien mina areagotzen esku-hartu badugu.

**Komunikazioa Etxerat**

[komunikazioa@etxerat.info](mailto:komunikazioa@etxerat.info)

Telf: 606084654



Ezin ditugu ahantzi, eta ez ditugu ahantzi nahi ere, sakabanatzearen ondorioz trafiko-istripuz senitarteko bat galdu duten 16 familiak; ez eta, espetxe politikaren erruz hurbileko pertsona maitatu bat galdu duten 31 familiak ere; galera horiek samin sakon bat eragin digute eta ekidin ahal izan zitezkeen zuzenbideari atxikitako espetxe politika bat aplikatu izan balitz. Sufrikarioekiko distantziakidetasunik ezarri nahi izan gabe, jakinarazi nahi dugu sufrikarioa geure barne-errietatik ezagutzen dugula eta horrek eramaten gaituela zuena aitortzera.

Lurralde honetako biktima gehienekin gertatzen denaren antzera, gu ere ez gaitu mugitzen mendeku sentipenak edo sufritu dugun guztiaren ordainetan besteari sufriarazi beharrak. Gure aniztasunetik adierazten dugu mugitzen gaituena honako hau dela: honetatik guztitik ezer ez dadila errepika eta etorkizuneko belaunaldiek ez ditzatela berriro sufri gatazka politikoaren ondorioak.

Horregatik, gure erronka hau da: jarrai dezagula elkarri entzuten, Etxeratek azken urteotan landu duenaren ildotik. Zubiak eraiki beharra daukagu eta kontakizun poliedriko batera hurbilduko gaituen bidean askotariko kontakizunak azaleratu beharra; horrek elkarrengana hurbilduko gaitu, zauriak sendatu eta itxiko ditu, eta bizikidetzaren oinarriak ezarriko ditu. Benetako bakerantz eta bake iraunkorrerantz doan bidea sostengatzen eta babesten duen gizarte bati guztion artean egin diezaiokegun ekarpenik onena da.



Etxerat decidió hace ya unos años incorporar una línea más de trabajo a su labor habitual como asociación en la asistencia y el asesoramiento a familiares de los presos y exiliados políticos vascos y, en una evolución constante, ha desarrollado y afianzado esa intervención, con el objetivo y el compromiso claro de contribuir a la convivencia y a la resolución del conflicto político.

En este proceso de reflexión y adquisición de compromisos, en el año 2011 decidimos adherirnos al Acuerdo de Gernika. Dos años después publicamos nuestro documento "Reconocimiento del sufrimiento", para poco después y, siempre en esta misma dirección, hacer nuestra aportación al "Plan de paz y convivencia" del Gobierno Vasco. Todo esto nos llevó a unirnos al Foro Social, en el que participamos activamente a día de hoy.

Esta participación en el Foro Social, propició nuestra presencia en las jornadas de Barcelona que, bajo el título "Construint la pau. Reptes i oportunitat per al País Basc, després de la fi d'ETA" y organizadas por el Ayuntamiento de la ciudad, junto a la Fundación Fundipau y el propio Foro Social, propiciaron el pasado verano un encuentro entre víctimas de diferente signo.

Nuestra posterior participación en las jornadas de la Fundación Buesa celebradas en octubre respondió igualmente a nuestro convencimiento de que, pese a las diferencias, escucharnos unas a otras y tender puentes para intentar seguir avanzando en base a lo que nos une es la aportación definitiva que podemos hacer todas a la convivencia, para construir un futuro con garantías de no repetición.

De todo este proceso surge la lectura que hoy hacemos en Donostia, en el Palacio Miramar.



## **Aportación de Etxerat a la convivencia**

Los familiares de los exiliados, presos y presas vascas queremos hoy, mediante esta declaración, hacer pública nuestra sincera voluntad de aportar a la convivencia democrática en nuestro país. Compartimos la necesidad de que en el nuevo escenario se escuche, de una vez por todas, a todas y cada una de las personas que han sufrido y sufren las consecuencias de la violencia derivada del conflicto político, para aportar en la resolución del mismo y que nunca más vuelva a ocurrir.

Sabemos que muchas víctimas de ETA están dando un paso adelante, posicionándose públicamente por una nueva política penitenciaria dejando atrás la actual que, entre otras consecuencias, castiga a los familiares de las y los presos políticos vascos. Queremos agradecerles sinceramente su empatía hacia nuestro sufrimiento y que lo hayan hecho desde la generosidad, sin esperar nada a cambio. También nosotras y nosotros queremos aportar en ese reconocimiento mutuo. Lo hacemos de manera sincera, movidos por el compromiso por la paz y la convivencia.

Al igual que les ha ocurrido a todas y cada una de las víctimas de todo tipo de violencia, los familiares de las y los presos políticos vascos hemos sentido durante muchos años la indiferencia de una parte de la sociedad y sus representantes políticos. Conocemos la marginación de las políticas públicas de convivencia y seguimos siendo víctimas potenciales de la política penitenciaria de excepción. Ello nos ha llevado a autoprotegernos, a mantener silencio ante el dolor de los demás. A no ser capaces de acercarnos, ni de manifestar empatía.

Expresamos nuestras más sinceras disculpas porque, sin ser conscientes de ello, hayamos podido, con nuestra distancia, contribuir más al dolor que deben afrontar las víctimas de ETA por la pena de haber perdido a su familiar de manera violenta.



Etxerat reconoce, respeta y empatiza con todas las víctimas de las diferentes expresiones de violencia. A todas y cada una de las víctimas, independientemente del origen de la violencia; a las víctimas de ETA, a las de los Comandos Autónomos, a las del terrorismo del Estado, a las víctimas de actuaciones de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado español, a las víctimas de torturas, les tendemos hoy la mano, especialmente, a aquellas a quienes por acción u omisión hayamos podido, aún sin pretenderlo, contribuir a acentuar su dolor.

No podemos ni queremos olvidar a las 16 familias que han perdido un familiar en accidente de tráfico a causa de la dispersión, ni a las 31 familias que han perdido un ser querido víctima de la política penitenciaria, pérdidas que nos han causado un profundo dolor y que se podrían haber evitado con una aplicación de la política penitenciaria ajustada a derecho. Sin pretender establecer equidistancia entre sufrimientos, queremos transmitir hoy que conocemos el sufrimiento en carne propia y ello nos hace reconocer el vuestro.

Como a la mayoría de las víctimas de este país, tampoco a nosotras y nosotros nos mueve ningún sentimiento de venganza, ni de revancha por todo lo sufrido. Manifestamos, desde nuestra pluralidad, que lo que nos mueve es que nada de todo esto se vuelva a repetir y que las generaciones futuras no vuelvan a sufrir las consecuencias del conflicto político.

Por eso apostamos por seguirnos escuchando, algo por lo que Etxerat ha trabajado en los últimos años, y reiteramos la necesidad de tender puentes, de que afloren los diferentes relatos en el camino hacia ese relato poliédrico que nos acerque, y sane y cierre las heridas, al objeto de establecer las bases de la convivencia. Es la mejor aportación que podemos hacer entre todas y todos a una sociedad que apoya y respalda el camino hacia una paz verdadera y duradera.